

# Hitzaurrea



ruitu helduz beterik datorkigu udaberriko *Behinola*, gure laugarren urteari aurre egiten diogun honetan. Gure seigarren zenbakian, haur txikienezko literaturaz jardun dugu, gai nagusi gisa. Hartara, «Hitz eta Pitz» saileko elkarrizketara KALANDRAKA Galiziako argitaletxeko lagunak azaldu dira, haur txikienezko albumgintza modernoaren nondik norakoak azaltzera. Eta aukera hori baliatu nahi izan dugu geure *Behinolak* ilustratu dituzten irudigileei ere galdeketatxo bat egiteko: hor ditugu, beraz, BELÉN LUCAS, JOKIN MITXELENA, ELENA ODRIOZOLA, ANTTON OLARIAGA, MIKEL VALVERDE ETA JON ZABALETA.

«Hitzontzi» ataleko sorkuntza-leihoia, berriz, JOXAN ORMAZABALEN poema musikariei zabaldu diegu, «Hizpide» delakoan gai nagusia alderdi teoriko-informatibotik berreskuratzeko: horra XABIER ETXANIZEN artikulua argigarria, eta JOSEBA LANDAK aurkeztutako euskal album bilduma berri bati buruzkoa ere.

«Hitz beste» gure ohiko kritika eta erreseinen atalean ere toki handia egin diegu txikienezko albumei, beste liburu askoren artean.



Jon Zabaleta


## Hitzaurrea

Eta «Hitzatzea», azkenik, txikitako irakurzaletasunari buruz ANJEL LERTXUNDIK egindako gogoeta interesgarri batez osaturik dator.

Horretaz guztiaz gainera, zenbait albiste ekarri ditugu «Hitzordu» atalera: apirilean aurkeztutako Galtzagorri Elkartearen webgunea, eta datorren azaroaren erdialdean eta Galtzagorri Elkartek berak antolatuta, Donostian burutuko den «Haur Poesiari buruzko Biltzarra».

Hori dena, JON ZABALETAREN ilustrazio zahar eta berri baina beti alaiiez lagunduta.

Hurrengo *Behinola* atera arteko beste sei hilabeteko itxaronaldia samurtzeko balioko dizulakoan, har ezazu aldizkaria egiten dugun guztion eskerona, irakurle.



Jon Zabaleta